

Beti-Txarto

Betiondoko musika lokalak laz jarri ziren martxan. Egun, herriko 20 taldek edo musika proiektuek konpartitzen dituzte 6 lokal hauek. Instalazioak munizipalak izan arren, Beti-txarto Elkarteak da euren gestioaz arduratzen dena.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Betiondoko musika lokalak 2009ko irailean zabaldu ziren eta Elkarteak ere 2009an sortu zen. Sortu baino, berpiztu dela esan daiteke, Ermuan betidanik egon delako musika taldeen kolektibo bat. Duela 15 urte maketa bat atera genuen, 'Rock the pueblo'. Orduan lokaltxo bat genuen Ateneoan eta horren ostean gela bat laga ziguten Torretako Gazte Etxean, baina soinu aldetik ez zen batere egokia, prestatu barik zegoelako. Azken urteetan, herriko talde gehienak Eibarko Legarreko lokaletara joaten ziren entseatzera eta lokal horien alokairua ordaintzeko Ermuko Udalak laguntza ematen zuen.

- Zenbat kide zarete?

70 lagunetik gora. Horien artean 20 talde daude eta hainbat bakarlari.



Gehienak rock taldeak dira, baina badaude folk eta perkusio taldeak, DJ eta gitarraistak. Ez dugu talde bakar bat bera ere kanpoan utzi nahi, baina lekua mugatua da, hau da, 6 lokal dira eta talde guztien ordutegiak adostu behar dira, musika-tresnenezako lekua bilatu... Jadanik talde bat itxarote-zerrendan dago, baina laster sartzea espero dugu.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Batez ere musika lokalak kudeatu, baina horretaz gain, herriko musika taldeak batzea eta beraien alde lan egitea da gure helburua. Gure artean ikastaroak egingo ditugu, kontzertuak antolatu... Pozik gaude, behingoz elka-

rrekin gaudelako eta hori aberasgarria delako.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Lokaletan batzen gara, hilean behin gutxienez, lokalen kudeaketaren jarraipena egiteko.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Momentuz, Vertigo Rock eta Folkez Blai jaialdiko antolatzaileei babesa emango diegu. Horretaz gain Santiaxuetako 'Parkespinako' kontzertuak bultzatuko ditugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Betiondoko lokaletara etorri edo Ermuko 210 posta-kutxatilara idatzi.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTİK

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78